

JAKINGARRIAK

“JAKINGARRIAK” ZER DA?

“JAKINGARRIAK” Eskoriatzako Irakasle Eskolan kokatuta dagoen Dokumentazio-Zentruko informazio-tresna da: bai Dokumentazio-Zentruak jasoten eta egiten dituen materialen berri emateko tresna eta bai informazio bibliografikoa emateko ere.

D. Zentruak, Eskolaren berrikuntza eta eskolaren euskalduntze prozesuan, lagungarriak izan daitezkeen materialak eskaini nahi ditu; horregatik, sortu eta bildu diren baliabideak erizpide batzuen arabera izan dira aukeratuak:

- Irakaskuntza funtzionala ahalbidetzen duten baliabideak.
- Haurren zeregin aktiboa bultzatzen duten baliabideak.
- Komunikaziorako eta elkarekintzarako espazio aproposak sortzen dituzten baliabideak.

Nahiz eta D. Zentruaren esparrua 0-7 urte bitartekoa izan, badu adin honen mugetatik ateratzen den arlo bat, Hizkuntzaren didaktikarena, hain zuzen; arlo honen barruak erreziklaiaren inguruan bildutako hainbat material dago, baita Euskara-koordinatzailearekin elkarlanean sortutakoak eta bildutakoak ere.

“JAKINGARRIAK” aldizkarian eskaintzen diren materialak jasotzeko bide ezberdinak daude:

- Liburutegi-zerbitzua: Zerbitzu honen bidez liburuen mailegua egin liteke.
- Fotokopiak: Artikulu, dokumentu eta baliabide batzuk eskuratzeko bidea eskaintzen du.
- Baliabideen mailegua: Zerbitzu honen bidez zenbait material eskaintzen da:
 - Diapositibak
 - Bideoak
 - ...

D. Zentrua Eskoriatzako Irakasle Eskolan dago kokatuta. Asteartetan egoten da irekita arratsaldeko 5,30etatik 7ak arte.

Arduradunak:

Irakasle Eskola: Nerea Alzola
Mariam Bilbatua
Resu Abasolo, OHOkoko irakaslea.

(Oharra: Komenigarria da etorri nahi dutenek aurrez abisatzea)

JAKINGARRIAK

17. ALE HONETAN

AURKITUKO DITUZUN INFORMAZIOAK

BERRI BIBLIOGRAFIKOAK

Liburu berrien albisteak

VEGA de, M. eta beste batzuk, "Lectura y comprensión. Una perspectiva cognitiva". Alianza, Madrid, 1990.

WILLIS, A., RICCIUTI, H., "Orientaciones para la escuela infantil de cero a dos años". MEC/Morata, Madrid, 1990.

Itzulpenak

PATTE, G. "Un voyage avec Oncle Elephant: le temps d'une histoire". La Revue des livres pour enfants, 119-120, Paris, 1988.

VERA JOHN-STEINER. "Vers la compétence linguistique en un pays étranger. Le bilinguisme dans une perspective vygotkienne". Le français dans le monde, février-mars, 1990.

Aldizkarietako zenbait artikuluren erreferentzia laburrak.

GAI MONOGRAFIKOA

Irakurketaren animazioa


ESPERIENTZIAK

- Añorga, P., Alzola, N..-"Irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko plangintza Eskoriatzako Irakasle Eskolan".
- Landa, M.A..-"Liburuak zertarako?"
- Chaos, C..-"Biblioteka eta haurra".
- Ormazabal, B..-"Haur irakurleak".
- Julene Azpeitia Eskola Publikoa (Zumaia)..-"Irakur zaletasuna".
- Calvo, B..-"Irakurketaren animazioa biblioteka publikoetan".
- "Denis Escarpit"i elkarrizketa.

BALIABIDEAK

Irakasle Eskolak argitaratutako bideo berrien aurkezpena.

LIBURU BERRIEN ALBISTEAK



VEGA DE, M. eta beste batzuk, "Lectura y comprensión. Una perspectiva cognitiva". Alianza-Psicología, Madrid, 1990.

Irakurtzen eta idazten dugunean egiten ditugun eragiketen identifikazioa eta beraien arteko interakzioak nolakoak diren definitzea, da gaur egun arlo honi buruz egiten ari diren azterketen helburu garrantzitsuenetarikoa bat. Helburu berberarekin idatzi da orain aztertzen ari garen liburua.

Liburua bi zatitan banatuta dago: Lehenengo partea osatzen duten hiru kapituluetan prozesamendu teorien ikuspegi orokor bat eskeintzen da, kapitulu bakoitza prozesamendu maila ezberdinen arabera antolatzen delarik:

- Hizki eta hitzen prozesamendua
- Esaldien prozesamendua
- Testuen prozesamendua

Prozesamendu maila bakoitza azaltzeko

baliogarriak izan daitezkeen eredu ezberdinen azterketatik aparte prozesamendua mota bakoitzean ematen diren arazoak aztertzen dira.

Bigarren partean autoreak egindako ikerketa baten berri ematen da. Hasteko ikerketaren ikuspegi globala: datuak jasotzeko erabili daitezkeen eta erabili diren teknikak, estadistika teknikak..., jarraian ikerketaren emaitzak azaltzen dira, eta, bukatzeko, hizkien kodifikaziotik testuen integrazioa doan "irakur prozesamendu"aren eredu bat azaltzen da.

Nahiz eta liburuan azaltzen diren teoriaren apartazioak oraindik eguneroko iharduera didaktikotik oso urrun egon, ikerketen nondik norakoa ezagutzeko oso interesgarria iruditzen zaigu liburu honen irakurketa.



WILLIS, A., RICCIUTI, H., "Orientaciones para la escuela infantil de cero a dos años". M.E.C./Morata, Madrid, 1990, 173 orr.

Haur txikien (0-2 urteko haurrak) hezkuntzari buruzko liburua ez dira ugariak... Hona hemen, Ipar Ameriketara egindako lan bat: Comelleko Unibertsitateko laguntzarekin "Cornell"eko Haur-Eskolako hiru urtetako esperientzia eta gogoeta egin ondoren idatzitako Haur-Eskolako (0-2 urte) orientabideak.

Liburuan zehar filosofia edo idea nagusi hauek aurki ditzakegu:

- Esperientzi guztiak aprendizai esperientziak dira
- Hezitzaileen profesionaltasuna beharrezkoa da.
- Praktika eta filosofia edo hezkuntza printzipioen arteko lotura egitea hezitzaileen etengabeko lana da.

Liburuak kapitulu edo gai nagusi hauek aurkezten ditu:

- Helburuak, antolaketa, proiektu pedagogikoa, familiarekiko harremanak.
- Jolasa eta ikaskuntza
- Haurtxoen moldaketa
- Eguneroko lanak eta zainketak
- Pertsonala
- Espazioa
- Osasuna
- Hainbat osagarri: ebaluatzeko eskeimak, eskutitz-ereduak, garapen eskalak, etab.

Lehenengo kapituluetan, autoreek erreflexio teoriko txiki bat egiten dute, hurrengoetan eguneroko bizitzarekin jarraitzeko. Beraz, esperientzia bat eta bertan jarraitutako orientabideak azaltzen dizkigute.

ITZULPENAK

PATTE, Geneviève..

“Un voyage avec Oncle Elephant: le temps d’une histoire”.
La revue des livres pour enfants, 119-120, Paris, 1988.

Un viaje con Tío Elefante: el tiempo de una historia.

Haur Literatura eta Haur Biblioteken munduan hain ezaguna eta jakintsua den Geneviève Patte artikulu oso interesgarria eskaintzen digu:

“Arnold Lobel”en “Tío Elefante”(*) liburua hartuz eta aztertuz, Haur Literaturaren hainbat oinarriko ezaugarri marrazten du.

Lobel maitatzen dugunok ondo uler dezakegu Geneviève Patteren aukera: Tío Elefante Haur Literaturaren bitxi bat da.

Patte haur eta helduen arteko erlazioei buruzko metafora bat bezala hartzen du, eta haurren mundua, sentimenduak, etab. ulertzeko, Lobelek duen ahalmena azpimarratzen du, beste Haur Literatur arloko obrak eta autoreak aipatuz eta erlazionatuz.

Artikulua, Tío Elefante liburua irakurri eta disfrutatu ondoren irakur daiteke, aurreko irakurketak ez bait du zentzurik.

Geneviève Patteren lantxo hau, haur liburu bat nola aztertu dezakegun eredu izan daiteke.

(*) LOBEL, Arnold.- “Tío Elefante”.- Alfaguara, Madrid, 1984, 66 orr.

VERA JOHN-STEINER


University of New Mexico, Albuquerque, U.S.A.

“VERS LA COMPÉTENCE LINGUISTIQUE EN PAYS ÉTRANGER. Le bilinguisme dans une perspective vyotskienne”.

Le français dans le monde, février-mars, 1990.

Recherche-Application

HACIA UNA COMPETENCIA LINGUISTICA EN UN PAIS EXTRANJERO. El bilinguismo en una perspectiva vyotskyana.



Erantzuna oso konplexua da, barne prozesuak konplexuak diren bezalaxe. Dirudienez pertsona desberdinak barne-estrategia desberdinak aukeratzen dituzte beren zailtasunak gainditzeko, baina guztien ikas-prozesuan hiru estadio nabari daitezke. Estadio hauetan zehar pertsona guztiek prozesu beretsua daramate estrategia desberdinak erabiltzen dituztelarik hizkuntza berriaren aurrean sortzen zaizkien arazoei aurre egiteko.

Artikuluaren sarreran ikerketaren marku teorikoa aipatzen da, hona hemen berezitasunik nagusienak:


- Amahizkuntza eta bigarren hizkuntzaren lorpen-prozesuak desberdinak dira, desberdintasun hauek haundiak badira ere, prozesu biak elkar-erlazionaturik daude.
- Haurrak hizkuntza berri bat ikasteko erabiltzen dituen barne-estrategiak eta helduak erabiltzen dituenak ez dira berdinak. Hezkuntz formalak badu honetan eragina.
- Hizkuntzaren erabilera interpersonala (hezitzaileekin elkarrekintza, batipat), diskurtsoaren funtzio kognitiboen barneratzearekin erabat erlazionatuta dago.
- Pertsonak kanporatzen duen produkzioa indize faltsua izan daiteke bere bigarren hizkuntzaren lorpena ebaluatzeko, pertsonak hizkuntza berria (bigarrena, hirugarrena,...) bereganatzeko martxan jartzen dituen barne-prozesuak ere aztertu behar ditugu hizkuntzaren lorpenak ebaluatzeko.

Eritzia: Oso artikulu interesgarria dela esan daiteke, besteak beste hizkuntzaren lorpena behatzeko eta ebaluatzeko ikuspegi desberdin bat eskaintzen digulako. Bestalde, eta artikuluaren helburua ez bada ere, hainbat erizpide pedagogiko eta metodologiko atera daitezke bertatik, bai eskolumeen bigarren hizkuntzaren aprendizai-prozesuari laguntzeko eta bai gaztetxo eta helduenari ere.

ALDIZKARIAK

CUADERNOS DE PEDAGOGIA

CUADERNOS DE PEDAGOGIA 180, 1990eko apirila



Giner, A., Urios, R. "Talleres y rincones". 55-56 orr.

Piaget, Vigotsky eta Ausubel autoreen teoriak oinarritzat hartuz, artikulua egileek Haur-Eskolako gela antolatzen dute marku konzeptuala deskribatzen dutelarik.

Batzu. "Disfrutar ¡al fin! en la clase de matemáticas". 58-65 orr. Bartzelonako Viana Ikastetxeak egindako

esperientzia eta erreflexioa: Eguneroko problematik abiatur... matematikaren lanketa.

Batzu. "Asturias: preescolar itinerante". 70-76 orr.

Haur-Eskola "Asturias"eko nekazal giroan.

Gimeno Sacristan, J. "Conocimiento e investigación en la práctica pedagógica". 80-86 orr.

Hezkuntzari buruzko ikerketak Praktikan eraginik ba ote du?

CUADERNOS DE PEDAGOGIA 181, 1990eko maiatza

Díez, M.C. "Queremos un diplodocus". 65-66 orr.

Alicanteko Aire Lliure eskolako 5 urteko haurrek dinosaurioez buruturiko ikerketa.



Fuentes, M.T. "El rincón de la peluquería". 72-74 orr. Hospitaleteko "La Marina" Eskolan egindako esperientzia eta erabilitako metodologia: txoko osagarriak eta globalizazioa.

L'ECOLE MATERNELLE

L'ECOLE MATERNELLE 5, 1990eko Otsaila

Boule, F.- "Mathématiques à l'école maternelle". 17-22 orr.

• Soinketa

Batzu.- "Point fort d'école: motricité d'expression et de communication. Exemple de séquences". 25-30 orr.

• Irakurketa

Eusèbe, J.- "Eduquer l'oeil". 35-36 orr.

Bousquet, A.- "Trois fonctions de l'objet-livre". 37-38

Clément, C.- "Contes merveilleux et littérature de jeunesse: un nouvel art d'être enfant?". 39-40 orr.

• Esperientzi arloa

Boucher, M.J., Cresson-Frigola, G.- "Faire voyager l'air avec des objets techniques". 43-44 orr.

Batzu.- "Des connaissances anatomiques spontanées à la découverte scientifique du corps". 45-46 orr.

• Dantza


Bodak, S.- "Prise de conscience, 'pouvoir et savoir'". 51-52

• Plastika

Tinard, O.- "Jeux d'eau; construction d'une sculpture-fontaine prolongements, découverte de l'univers arpien". 53-56 orr.

• Antzerkia/Txontxongiloa

Winther, M.- "Le théâtre d'ombres". 61-62 orr.



L'ECOLE MATERNELLE 6, 1990eko martxoa

Rolland, M.C. "Quel avenir pour l'école maternelle française?. 3-8 orr.

Lambert, J.F. "Apprentissage et autonomie. Une autre approche de l'acte éducatif". 19-23 orr.

• Soinketa
Lefèvre, A.M., Dubief, G. "Petite section". 25-30 orr.

• Irakurketa
Eusèbe, J. "Lecture en liberté". 35-36 orr.

• Esperientzi arloa
Boucher, M.J., Frigola-Cresson, G. "L'air est nécessaire à la vie, à la combustion". 41-42 orr.


Batzu. "Apports scientifiques: recherche de situations et de documents vrais". 43-44 orr.

• Dantza
Bodak, S. "Prise de conscience 'pouvoir et savoir'". 53-54 orr.

• Musika
Polonovski, C. "Le rythme: sa pulsation". 55-56 orr.

• Antzerkia
Winther, M. "Le théâtre d'ombres". 57-58 orr.

• Plastika
Lecoq, A.M. "Sensibilisation des enfants à l'environnement et à l'espace architectural". 59-61 orr.



G. "Motricité d'expression et de communication". 25-26 orr.
"Motricité de locomotion". 27-28 orr.
"Motricité de manipulation". 29-30 orr.


• Esperientzi arloa
Boucher, M.J. "Visite au musée de l'air et de l'espace" 43-44 orr.

Batzu. "Maitresse, j'ai mal au ventre". 45-46 orr.

• Dantza
Batzu. "La prise de conscience: pouvoir et savoir". 55-56 orr.

• Antzerkia
Winther, M. "Le théâtre d'ombres". 59-60 orr.

INFANCIA



INFANCIA 53, 1990eko martxoa-apirila

Mata, M. "Aportaciones a la historia de l'educació dels més petits a Catalunya". 4-12 orr.
Haur-Eskola Catalunyako historian (XIX. mendeko amaieratik aurrera).

Rinaldi, C. "Programació a l'escole bressol". 14-17 orr.
10 urteko esperientzia: Reggio Emiliako Haur-Eskoletako programazioak eta lanak.

Canals, M.A. "Matemàtica al parvulari". 23-26 orr.

Carreras, C. "Biblioteques per a infants de 0 a 6 anys". 27-31 orr.
Haur Biblioteken eboluzioa, garrantzia eta beharrak.

L'ECOLE MATERNELLE 7, 1990eko apirila

Roftus, D. "Identifications". 7-10 orr.

Gauthier, M.T. "Une classe de découverte au musée". 12-16 orr.

• Soinketa
Lefèvre, A.M., Dubief,



Berri Bibliografikoak

Heras, P. "Ja comença des de la infància...". 32-34 orr.
Sexismoa, emakumearen irudia, rola eta hezkuntzaren ga-
rantzia eta eragina.

Federació Francesa de Natació Pre-escolar. "Activitats
aquàtiques per als petits". 35-38 orr.
Hasiera hasieratik uretan...!

Albarran, C. "El nen diabètic a l'escola". 39-41 orr.

PERSPECTIVA ESCOLAR

PERSPECTIVA ESCOLAR 141, 1990eko urtarrila

Canals, M.A. "Les paradoxes del mestre". 6-8 orr.




Irakasleen eguneroko
kontraesanak, M.
Antonia Canalsen
umore ikuspegitik.

Galicia, M. "Les mil
facetes de la feina del
mestre". 11-13 orr.

Biblioteca Rosa
Sensat. "Bibliografia
sobre el mestre". 22
orr.

PERSPECTIVA ESCOLAR 142, 1990eko otsaila



Ferrando, M. "El nen i
la publicitat". 2-6 orr.
Publizitatearen funtzioa
eta haurrengan duen
eragina.

Corominas, M. "El nen
protagonista i destina-
tari de la publicitat".
7-10 orr.
Sarritan publicitatearen
jasotzaile nagusia hau-
rra da: jostailuak, ohitu-
rak,...

Marin, I. "La publicitat i la joguina". 11-14 orr.

Publizitatea aztertze eta jostailuen aukeraketa ona egin ahal
izateko, artikulua honetan hainbat aholku eta kriterio eskain-
tzen digute.

PERSPECTIVA ESCOLAR 144, 1990eko apirila


Berrio, J. "La televisió
com a mitjà de socia-
lització". 2-5 orr.

Saperas, E. "Algunes
idees bàsiques per a re-
flexionar sobre els
efectes de la televisió en
els infants". 15-18 orr.

Parés, M. "La televisió
com a instrument pe-
dagògic". 19-22 orr.

Biblioteca Rosa Sen-
sat. "Bibliografia so-
bre la televisió". 23-24
orr.

Thió de Pol, C. "La relació entre pares i educadors a
l'escola bressol". 27-29 orr.




CLIJ

CLIJ 16, 1990eko apirila

"Grandes para peque-
ños" artikuluan bes-
teak beste:
"Bernardo Atxaga: el
hombre tranquilo".
10-11 orr.

"Silvia y Bruno. El úl-
timo gran libro del 89".
18-19 orr.

Lewis Carroll, Aliciaren
sortzailearen "Silvia y
Bruno" obraren edizio
berria.




Rodríguez Santerbás, S. "Mi devoción por Carroll". 19-20 orr.

Santiago Rodríguez Lewis Carroll "Silvia y Bruno" liburua-
ren itzultzaile eta egokitzailea da.

CLIJ 17, 1990eko maiatza

Abril, P. "La guerra santa de la animación". 8-11 orr.



Nola heltzen dira hau-
rrak irakurle onakeziza-
tera?

Telebistaren eragina al
da?

Basanta, A. "Una acti-
tud permanente". 12-
15 orr.

Irakurketaren zaletasu-
naren promozioa egoe-
ra nahiko desegokitan
egiten ari da...

Ventura, N. "La Bi-
blioteca pública como
instrumento". 23-26
orr.

Herri Biblioteken rola irakurketaren animazioan.

Chaos, C. "Biblioteca Municipal de San Sebastian". 38-40
orr.

Donostiako Haur Bibliotekaren antolaketa, lanak eta anima-
zioa.

COMUNICACION, LENGUAJE Y EDUCACION

COMUNICACION, LENGUAJE Y EDUCACION 5, 1990

KRASNY-BROWN, L., "No, pero he visto la película".
Artikulu honetan, autoreak adibide askoren bidez liburuen
irakurketatik eta telebista ikustetik haurrek jasotzen dituzten
informazioak aztertzen ditu, eta, baita haurren aldetik eska-
tzen dituzten eragiketarik eta probokatzen dituzten erantzunak.
Baliabide biek duten eragin ezberdinetatik abiatuz irakaskun-
tzarako baliogarriak izan daitezkeen proposamen didaktikoak
eskeintzen ditu.

GUTIERREZ, Alonso,
"La televisión y los
niños. ¿Una relación
incomprendida?"

Haurra eta telebistaren
arteko erlazioa interak-
zio bezala aztertzen du
autoreak: interakzio
honetan haurra ez da
zerbait pasiboa, baizik
eta kognitiboki aktiboa
den pertaidea.

RUIZ, Uri, "La L2 en
preescolar una pro-
puesta de diseño".

Ikuspegi komunikatiboetan oinarritu behar dela H2ren irakas-
kuntza justifikatu ondoren, proposamen didaktiko bat azal-
tzen da: alde batetik, irakaslearen zeregina kokatzeko printzi-
pio metodologikoak; bestetik, ipuinetan oinarritutako propo-
samen baten diseinu orokorra.

SHUM, G., "Lenguaje y rendimiento escolar: un estudio
predictivo".

Artikulu honetan hizkuntz gaitasuna eta irakaskuntzan lortu-
tako lorpenen arteko loturak aztertzeke asmoz egindako iker-
keta baten berri ematen da.

LOZANO, Luis, "Las dificultades de la lectura desde el
procesamiento de la información".

"Informazio prozesamendu" eredutik abiatuz dislexia azter-
tzeke ikuspegi berri bat eskeintzen da. Honen barruan disle-
xiaren arazoak eta dislexia mota ezberdinak azaltzen dira;
halaber, terapeutikan teoria hauek eduki ditzaketan aplikape-
nak azaltzen dira.

LECTURA Y VIDA

LECTURA Y VIDA, 1990eko Martxoa

NERVI, J.R., "Algunas premisas sociopedagógicas para
un perfil del alumno de primer grado".

Artikulu honetan irakurketa eta idazketa ikaste prozesuari
heltzen dion hauraren berezitasunak eta irakasleen zereginak
hobeto ulertzeko baliogarriak izan daitezkeen autore ezberdi-
nen aportazioak aztertzen dira.



ELINZAIN, A., "Algunas relaciones entre la lengua hablada y la lengua escrita".

Autoreak testu idatzia eta ahozkoaren arteko ezberdintasunak, batetik, eta beraien arteko osagarritasuna, bestetik, diskurtsoaren perspektiban kokatzen ditu. Ahozko komunikazioari "modu pragmatiko"aren berezitasunak dagozkio; idatzizkoari ostera "modu sintaktiko"arenak. Horrela izanik, autoreak, komunikazioan, bai ahozkoan eta bai idatzizkoan modu biak batera ematen direla adierazten du hainbat adibide medio.

CHADWICK, W.M. eta SCAGLIOTTI, G.J., "Aproximación del enfoque sistemático a los trastornos del aprendizaje".

Artikulu honetan "teoria de los sistemas"etik abiatuz aztertzen dira ikaskuntza arazoak. Teoria honetan familia eta eskolaren artean ematen diren loturak aztertzeko marko bat eskeintzen da. Marku hau baliogarria izan daiteke, hala prozesua ebaluatzeko nola zailtasunak dituzten hurrekiko lana kokatzeko.

RIVERO, H.J., "Alfabetización, derechos humanos y democracia"

Aurten ospatzen den "Nazio arteko Alfabetazio urtea" analfabetismoari buruzko erreflexio eta ikerketa ugari... bultzatuko ditu. Artikulu honetan autoreak alfabetizazio eta giza eskubideen lorpen errealak lotzen ditu eta baita alfabetizazioa eta demokrazia ere.

Arazo honi aurre egiteko politika erregionalaren beharra azpimarratzen du.

ALDIZKARI BERRIA

INFANCIA –Educar de 0 a 6 años– Aldizkaria lehenengo aldiz gazteleraz sortzen da, "Rosa Sensat"eko "Associació de Mestres"ek urte askotan "Infancia" katalana editatu ondoren.

Aldizkaria, bi hilabetero agertuko da, "Irene Balaguer eta Francesca Majó"ren zuzendaritzapean, Erredakzio kontseiluan Estatuko hainbat ekipok parte hartzen duelarik.

Infancia aldizkariak, Haurreskola inguruan gaztelerazko argitalpenetan dagoen hutsunea beteko du, esperientzia luze eta leku desberdinetako lan-ekipoen laguntzarekin.

Argitalpen honek arlo iraunkor hauek agertuko ditu:

- Educar de 0 a 6 años: Oinarrizko artikulua
- Escuela 0-3
Escuela 3-6 Esperientzi pedagogikoen azalpena eta beraiei buruzko erreflexioa.
- Infancia y sociedad
- Infancia y salud
- Erase una vez: Ipuinak eta komentarioak
- Informaciones

Norbait interesaturik egon ezker, hona hemen oinarrizko datuak:

<h3>Boletín de suscripción</h3> <p><input type="checkbox"/></p> <p>Apellidos _____ Nombre _____</p> <p>Dirección _____ <input type="checkbox"/></p> <p>C.P. _____ Población _____ Provincia _____</p> <p>Teléfono _____</p> <p>Se suscribe a <i>In-fan-cia</i> (4 números) para el año 1990</p> <p>Importe: 2.200,— ptas.</p> <p>Pago: Por talón adjunto al boletín <input type="radio"/> Por domiciliación bancaria <input type="radio"/></p>	<h3>Boletín de domiciliación bancaria</h3> <p>Nombre y apellidos _____</p> <p>Nombre y apellidos del titular _____</p> <p>Banco/Caja _____ Agencia _____</p> <p>Población _____ Provincia _____</p> <p>Nº cuenta/libreta _____</p> <p>Les agradeceré que con cargo a mi cuenta/libreta satisfagan el recibo que anualmente les presentará «Associació de Mestres Rosa Sensat» por la suscripción a la revista <i>In-fan-cia</i>.</p> <p>(firma)</p>
----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

in-fan-cia
educar de 0 a 6 años
Còrsega, 271
08008 BARCELONA

INFANCIA –Educar de 0 a 6 años– 1, 1990eko maiatza-ekaina.

Mata, M. "Editorial, Infancia", 1-5 orr.

Aranguren, J.L. "Tecnología, juegos e imaginación", 7-9 orr.

Aranguren irakasleak irudimenaren eta jolasaren garapenean teknologi berriek eduki dezaketen eragina aztertzen du.

Durand, M. "Libros antes de leer". 12-16 orr.

Zer da irakurtzea irakurle ez direnentzat?

Zergaitik eta nola irakurri haur txikiekin?

Zein liburu mota erabili behar dira?

Batzu. "Hola y Adiós". Comunicación e intercambio, 17-23 orr.

Sarrera eta irteerako momentuak Haurreskolan.

Valero, L. "La Alhambra". 26-31 orr.

Alhambrara irteera: prestakuntza, gelako bizitza, helburuak, produkzioak,...



Feu, M.T., Vilarnau, M.T. "Observar y experimentar con los pequeños". 32-35 orr.

Ezagutza zientifikoaren oinarriak haurreskolan.

Grimalt, A. "La sonrisa y la salud". 39-41 orr.

Irribarrearen garrantziko funtzioa: garapen afektiboan, osasunean, komunikazioan,...



HAUR ETA GAZTE LIBURUEN ANIMAZIOA

Azken urteotan, inoiz ez bezala, mugimendu itzela eman da Haur eta Gazte Liburu Animaziogintzan. Bapatean, badirudi, denok jabetu egin gara irakurketaren garrantziaz. Telebistak, agian, nostalgiko samar laga gaitu eta behin-behingo konpreniarazi, liburuak ere, gaurregungo uhin hertzianoen aurrean, beste erabateko uhinak sorlitzakeela haurren heziketan.

Estatu mailan, esaterako, Gualajarako Infantado Biblioteka Publikoa deritzanak, urteoro antolatu egin izan ohi du "Haur Liburu animatzaileen topaketak". Beste horrenbeste, Avilako Arenas de San Pedro edo Zaragozako C.P.E.-ko arduradunek.

Han eta hemen barreiatu dira kolektiboak, mintegiak eta talde sustatzaileak, haur libururik interesgarrienak hel daitezten haurren eskuetara.

CLIJ aldizkaria plazaratu da, haur literaturaren zabalkuntza

zein liburu animazioaren mesedetan. Besteak-beste, hona: Atiza, Platero, Faristol, Educación y Biblioteca, Letragorda, Tripiltrapala...

España mailan mugitzen den O.E.P.L.I. erakundea ere hor dihardu lanean, haur literaturak helduen literaturak hainbat duntasun eta errekonozimendu izan dezan.

Eta gure ingurune hurbilean zer? Lehenik eta behin bada, zera esan behar, gauzak mugitzen hasiak direla. Gipuzkoako Bibliotekariak, esaterako, bere Elkartea daukate, urteoro ihardunaldi trinkoak antolatzen dituztelarik bibliotekariaren formakuntza alorean.

Iragan urtean, Getxoko Fadura Polikiroldegian, "Haur eta Gazte Liburu Euskadiko Lehen Aretoa" antolatu zen.

Eskoriatzako Irakasle Eskolak, aldiz, Haur Liburu Mintegia sor-

tu berria du, Deba Garaiko Bibliotekariak zein irakasleak elkartuz.

Hor daude baita ere, berearena eta bost egiten, Zarautz, Ordizia, Barakaldo eta Leioako P.A.T.-ak, Bizkaiko Doktore eta Lizenziatuen Eskola eta beste hainbat eskola gehiago...

Denon begi nahiz ezpainetan, gauza bat dago finko: irakurketa garrantzitsua dela haurren formakuntzan eta ondorioz, ahalegindu behar dugula, merkatuak eskaintzen dizkigun kalitatezko liburuak haurren eskuetan jartzten. Zeren, animazioak, hor bait dauka funtsa eta izatearen arrazoia. Orduan agian eta orduan bakarrik, bait dakigu, liburu uhinetan ere, nabigatzen has gaitzkeela, esistitu eta inoiz esistitu ez diren lurraldeak esplora daitezten.

Hori da, behinik-behin, gure apostua eta "Jakingarriak" atera duen ale honen helburua.

BIBLIOGRAFIA:

CALLEJA, S., "Lecturas animadas. Actividades didácticas de lectura en el bachillerato". Mensajero. Bilbao, 1988.

"Gazteek, gehienetan, batere motibaturik egon gabe "literatura klasikoa" irakurtzen dute, edo hobeki esan, irakurri egin behar izaten dute derrigorrez programa batzuren izenean. Eta, Seve Callejak, liburu honetan, erakusten digu nola, "literatura klasikoa" ere, oso erraz irakur daitekeela baldin eta gazteak ondo motibatzen badira. Esaterako, Julio Cortazar, García Marquez, Kafka, Wells, Perez Galdos... eta edozein autore".

CASAS, L. y CENTELLAS, J., "Yo leo: una experiencia de biblioteca de aula en el ciclo medio". Pirene. Barcelona, 1989.

"Liburuekin lanean aritu daiteke, horixe baietz, baina beti liburuaren alderdi ludikoa zein emozionalaz ahaztu gabe, nola ikasgelaz barenan hala ikasgelaz kanpo. Zergatik ez eratu, beraz, Erdiko Ziklotik hasita, gelako liburutegi dinamikorik?. Zergatik ez, irakurle "onak" sortu?".

Erdiko Zikloan lan egiten duten irakasle sutsu batzuren testigantza bizia duzue liburua.

GAMARRA, Pierre, "El libro y el niño: importancia de la lectura en la educación". Edit. Kapelusz. Buenos Aires, 1976.

"Irakurtzea ez da ahozkatzea baizik eta liburuaren lerro bizietan barneratzea, gure benetazko ahotsa aurki dezagun. Ahotsa edo oihartzuna, txikitandik behinik-behin, testurik gabeko liburuetan ere harrapa daitekeena. Horregatik, hain beharrezkoa, haur biblioteka egokiak edukitzea, ez liburuak kaxak bezala kontatzeko baina bai esnatzeko, benetazko lagunak bailiran".

GOMEZ DEL MANZANO, M., "Cómo hacer a un niño lector". Narcea. Madrid, 1986.

"Gurasoentzat bereziki, baina baita liburuaren animazioaz arduratzen den edonorentzat idatzia dago liburu argi bezain interesgarri hau, liburuekiko topaketa ahalik eta atsegina izan dadin haurarentzat. Gauza geiniago ikasi eta irudimena areago landu ezezik, une fantastikoak zein liluragarriak bizitzeko ere aukera izan dezan. Zeregin horretan, gurasoek ere, badute zer ikasi".

PATTE, G., "Dejadles leer: los niños y las bibliotecas". Pirene. Barcelona, 1988.

"Liburu honen egilea oso ezaguna dugu nazioarte mailan; batipat, haur eta gazte liburuak zabaltzen eta haur bibliotekak eratzen egin duen lanagatik. Hain zuzen, honoko liburu hau, esan behar, bere lan guzti horien fruitu eta sintesia dela. Horregatik, haur liburuak zabaldu nahi baditugu, behar-beharrezkoa dela uste dugu beronen irakurketa, gure haur eta gazteek, merkatuan dauden liburuak onenak dastatzen".

SARTO, M., "La animación a la lectura para hacer al niño lector". S.M. Madrid, 1986.

"Montserrat Sartok, liburu honetan, estrategia desberdinak proposatzen eta finkatzen saiatzen da animazio arloa lantzeko; baina, hori bai, zera azpimarkaturik: estrategia guztiak irakurketaren ondoren kokatu behar ditugula, izan ere, bere eritziz, estrategia egokien bitartez bakarrik sentituko baita haurra inplikatu eta ondorioz, liburu desberdinak ezagutzera abiatuko da".

TUCKER Nicholas, "El niño y el libro". Fondo de Cultura Económica. Mexico, 1985.

"Haurrek ia txikitandik, literaturarekin ze harreman moeta dituzten aztertzen duen liburu dugu honoko hau, lehen irudizko estampa politetatik hasiz, helduen liburuetaraino helduz.

Honez gain, oso ondo agertzen du, teoriz helduei begira idatzi egin izan diren hainbat liburu, gero, haurrek, zorionez, bere egin dutela".

VARIOS, "El poder de leer". Gedisa. Barcelona, 1982.

"G.F.E.N. Heziketari lotua dagoen pedagogo frantses talde baten lana dugu honoko liburu. Bertan, besteak beste, irakurketaren aprendizaiaren oinarrikoak diren teknikak, prozedurak eta orientabide interesgarriak aurki ditzakezue beti ere, irakurketa izan dadin elkarrizketa bizia eta ez zerbait mekaniko eta hotza, zeren gaurregun, frantses taldeak sostengantzen duen bezala, ez analfabetoek bakarrik, baita jende mordo batek ere, ez bait daki liburuekin komunikatzen".

BESTE HAINBAT LIBURU...

FÄHRMANN, W. y GOMEZ DEL MANZANO, M., "El niño y los libros: cómo despertar una afición". S.M. Madrid, 1985.

FREIRE, Pablo, "La importancia de leer y el proceso de liberación". Madrid. Siglo XXI, 1984.

HAZARD, Paul, "Los libros, los niños y los hombres". Edit. Juventud, Barcelona, 1977.

MORENO, V., "El deseo de leer: propuestas creativas para despertar y mantener el gusto por la lectura, Pamiela, Pamplona, 1985.

MORENO, V., "El juego poético en la escuela", Pamiela, Pamplona, 1989.

PARMEGANI, C.A., "Libros y bibliotecas para niños", Fundación Germán Sánchez Rupérez, Salamanca, 1987.

RODARI, G., "Gramática de la fantasía: introducción al arte de inventar historias". Aliorna, Barcelona, 1989.

ROMERO TOVAR, L., "La aventura de leer". Salvat, Barcelona, 1983.

SEMINARIO DE LITERATURA INFANTIL, "¿Qué libros han de leer los niños?", Rosa Sensat, Barcelona.

VAREA, J.L., SAEZ, M.R., "Los niños leen", Eunsa, Barcelona, 1982.

VARIOS. "Bibliotecas públicas hoy y mañana. Nuevos planteamientos de objetivos y gestión". Coloquio internacional organizado por la Fundación Bertelsmann. Edit. Fundación Germán Sánchez Rupérez. Salamanca, 1985.

VARIOS. "Crear y animar una biblioteca. En el medio Rural. En las pequeñas poblaciones. En el hospital. En la empresa". Fundación Germán Sánchez Rupérez. Salamanca, 1988.

VARIOS AUTORES, "Crear lectores activos". Visor, Madrid, 1989.

VENTURA, N., "Gufa práctica para bibliotecas infantiles y escolares", Laia, Barcelona, 1988.

ZAPATA LERGA, P., "¿Adiós a la gramática?". (Lectura y bibliotecas escolares). Diputación de Valladolid, 1988.

BIBLIOTEKA ETA HAURRAK

Concepción Chaos Lloret

Bibliotekaria.

Haur-Saila. Donostiako Biblioteka eta Kultur Etxeen Patronatuaren Biblioteka Zentrala.

En este artículo, la autora, responsable de la Biblioteca Infantil de San Sebastián y pionera en este campo en el País Vasco, nos habla de sus objetivos de trabajo y de algunos recursos que utiliza en su Biblioteca.

Liburuak eta beste zenbait material haur eta gaztetxoekin harreman estuan jartzea da Haur-Bibliotekaren helburuetariko bat, horrela, Biblioteka zentzurik gabeko leku aparte bat delako ideia okerra zuzendu nahi delarik.

Helburu hau lortzeko, Bibliotekak estrategia ezberdinak erabiltzen ditu, azken batean, zerbitzu hau auzategi, eskola edo komunitate bateko haurren eguneroko bizitzan integratzea delarik helburua.

Gaur egun kezka bizia dago alde guztietan irakurketa dinamizatu eta bultzatzeko. Eskolek ere liburuekiko animazio-teknikak ezagutu nahi dituzte; zenbait argitaletzek beren animazio-taldeak

eratu ditu eta erakunde ofizialek ere kanpainak antolatzen dituzte liburuak irakurketa bultzatzeko ahaleginak eginez.

Halere, eta bitxia da, Bibliotekak ez du protagonismo handirik izaten ekitaldi hauetan.

Gure hurrek ordenadore, bideo, grabagailu eta teknologia modernoak eskaintako beste hainbat baliabide erabiltzen badituzte ere, Biblioteka ez dute ia batere ezagutzen.

Horregatik, Haur-Bibliotekaren animazioaz hitz egitean, ea Bibliotekak irakurle gaztetxoak bere geletara erakartzeko ba ote duen behar hainbat erakargarritasun hasi beharko genuke planteatzen.

Umeei fondo bibliografiko aberats eta ugaria eta biblioteka-zer-

bitzu osoak (liburu-mailegua, entzunikustekoen bilduma, heme-roteka, etab.) eskaintzeko euskarri izan beharko luke Biblioteka-animazioak. Honela lortuko luke animazioak bere benetako helburua: liburuak eta beste material batzuk erraz eskuratzeko aukera ematea haurrari eta Bibliotekaren erabilera indartzea.

Biblioteka publiko nahiz eskolarreko ekintzak planifikatzeko orduan, badago ahaztu behar ez den arau nagusi bat. Animazio-ekintza guztiek liburuan izan behar dute abiapuntua eta haurra liburura eramanez, Bibliotekako baliabideak erabiltzera bultzatuz.

Arau hau ez bada betetzen, antzoki edo jolastokiaren eginkizunak ordezkatzeko ditu Bibliotekak

baina ez du beteko bere sorreran eman zitzaion eginkizun nagusia.

Animazio-mota ezberdinak daude haurrak Bibliotekara erakartzeko. Bat egunerokoa edo arrunta deituko genukeena eta beste bat apartekoa.

Eguneroko animazioa edo arrunta ez da agerian ikusten baina bai igartzen, eta da:

– Irakurlea gidatzea. Haurra lehenengo aldiz iristen denean Bibliotekara, erabil ditzakeen zerbitzuen berri eman behar zaio, eta zerbitzu horiek zuzen erabil ditzan lagundu. Irakurle gazte-
txoak jakin behar du edozein momentuan balia daitekeela bibliotekariaren aholkularitzaz. Bibliotekak prestaturiko “Irakurlearen Gida” alai eta apainak osatuko du azalpena.

– Irakurleen partaidetza Biblio-

tekako eginkizunetan. Bibliotekako laguntzaile sutsuak izan ohi dira haurrak eta berauen eguneroko partaidetza zenbait eginkizunetan (liburuak ordenatu, zigilatu, apurtutakoak kendu, etab. egiten) oso eraginkorra izaten da Biblioteka beren zerbait dela pentsa dezaten.

– Argitalpen berrien zerrenda. Bibliotekako fondora liburu berriak ekartzean egiten da eta haurren artean banatzen.

– Irakurketa-gidak. Gai edo autore baten inguruan egindako liburu-zerrendak izaten dira. Modu erakargarrian egin behar dira, koloretako paperetan eta marrazkiz hornituak. Fotokopiagailua erabiltzen bada, oso argi eta garbiak izan behar dute kopiak.

– Eskola-bisitak. Haurrek eta irakasleek elkarrekin bisitatzen

dute Biblioteka eta funtzionamenduaren azalpena hartzen dute.

– Eguneroko beste animazio-mota batzuk lirateke: iradokizun edo sujerentziak hartzeko kaxa, “Eskarien kartela” (irakurri nahi dituzten liburuak apuntatu behar dituzte haurrek kartulinan), iragarki-
taula (Bibliotekaren sarrean kokaturik ekintza ezberdinen berri emateko erabiltzen dena), apainketa bereziak (Gabonetan, Liburuaren Egunean...) etab.

Eta azkenik, aparteko animazioa, noizean behin arrazoi bereziren batengatik egiten dena, Bibliotekak aparteko garrantzia ematen diolarik. Hemen sartuko genituzke: Ipuinaren Ordua, idazle eta marrazkigileekin topaketak, liburu-erakusketak, Liburu-Azokan parte hartzea, etab.

(Artikulu hau gazteleratik itzulia izan da).



HAUR IRAKURLEAK

Belén Ormazabal
Euskara Teknikaria.
ORDIZIAko PAT.

Belén Ormazabal, con la autoridad que le concede su experiencia en la Escuela de Zegama, nos da unas pautas claras para impulsar la afición de la lectura desde la Escuela Infantil.

LIBURUTEGIAREN ERABILPENA HAUR-ESKOLAN

Irakaskuntza munduan gabiltzanok, askotan kejarazten gara gure ikasleen hizkuntza maila apala, adierazpen eskaxekoa, hiztegi pobrea eta liburuekiko duten jarrera hotz eta ajolagabekeriaz. Guzti hau askotan horrela delarik, erreflexio sakon bat egin beharko genuke, alde batetik gaur egungo gizarte teknifikatu eta industrializatu honek duen eragina arlo honetan eta bestetik, eskolaren papela, posibilitateak eta jokabidea irakurketa zaletasunaren inguruan dugun antolaketa eta sensibilitateaz.

Teorian inork ez du ukatzen irakurtzea garrantzitsua ez denik bai ONGI HITZ egiteko eta ONGI IDAZTEKO, baita ere denbora libre atseginez betetzeko ohitura egoki eta interesgarri bat bezela ere, baina, benetan, irakasleok sinisten, sentitzen eta bultzatzen al dugu irakur zaletasuneko ekintzarik, bai gela eta ikastetxe mailan? Eta gure hizkuntza programatzeko garaian zein garrantzi du programaketa orokorrean?

Irakurketa zaletasunaren prozesoa, haurra txiki txikia denetik eman behar da. Haur-eskolak eragin handia du geroko irakurle goetan, curiositatea eta interesa sortzen. Garai honetan liburuaren hurbiltzetak

atsegintasun bat sortzen arazten badu, normalena da gero ere bide hauetatik jarraitzea. Beste aldetik, irudimenaren mundua, kolorea eta haurren fantasi magikoa lantzeko era egokia, polita eta ezin hobea dugu ipuin mundua.

Zaletasun, irakur gogo edo liburuekiko jarrera on hau bultzatzeko giroa sortzea da Haurreskolaren ardurarik nagusia.

Estimulazio egoki batek, ez du esan nahi gauz konplexoak edo zailak egin beharra ditugunik, modu sinple edo xehe batez girotu baizik. Baina giroa sortzeko garrantzitsua, irakaslearen sensibilitatea eta interesa ditugu.

Irakurketan sinistu eta bizi duen irakasle batek, nahiz material gutxi izan eta bere eskolako ekonomi mugatuarekin topo egin, zihur izan haur irakurleak izango dituela.

GELAKO LIBURUTEGIA

Gela guztietan mimatutako txoko bat izan beharko luke liburutegitxoak. Haurrak, bertan aurkituko duen liburu mota nagusia, normalean, ipuina izango da, baina, egokia da baita ere adin honetan beste

mota bateko liburuak hurbil izatea. Txoko honetan EGUNERO, irakasleak talde handiko irakur saioak bideratuko ditu.

Haurrari belarriak eta irudimena gozatu egin behar zaio eta bere fantasia libre hutzi. Era honetan poliki-poliki entzuten ikasi, hiztegia zabaldu, taldean egoten eta partizipatzen ikasiko du.

Antzinan, beste gizarte mota batetan noski, aito-na-amonek betetzen zuten neurri handi batetan eginkizun hau, eta ahoz-ahoz, belaunaldiz-belaunaldi transmititzen joan ziren ipuin herrikoiak.

Nork ez du atsegin, nahiz txiki ala handi, ipuin kontaketa on bat entzun eta daztatzea?

Ekintza garrantzitsu hau, gaurko eskolak bereganatu beharko luke, liburu bitarteko delarik O.H.O.-osoan zehar.

Ipuin irakurketa bat egiteko borobilean eta haurrengandik ahalik eta hurbilena egotea litzeteke, nahiz lurrean, nahiz aulkian edo mahai bat bitarteko delarik, beti, komunikazioa errestuko duen moduan eserita.

Teknika aldetik, hizkuntzaren aspektu ezlinguistikoak asko landu behar dira, entonazio, pausak, e.a., eta irakurketa bizitu eta sentitu arazi egin behar da, hau da, haurra ipuinaren tramaren barruan sartu bere bizipen guztiekin, poza, beldurra, suspensea, e.a.

Liburu bat bitarteko delarik, saio atsegin hauetan, hurbilketa eta familiarizazio honetatik aparte, beste gauza bat garatzea da helburu nagusi bat, aho hizkuntzaren trebaketa, elkarrizketak sortu, berkontatu, ipuina geldiarazi eta suposizioak egin, e.a.

Gelako liburutegitxo hau, estetika aldetik polita izatetik gain eroso eta liburuak beti haurrak ongi manejatzeke eta hartzeko moduan antolaturik egon behar du. Haurrak txiki txikitatik liburuak hartzen eta huzten ikasi behar du, liburutegia txukun edukitzen eta aukeraketarako bere kriterioak izaten ikasiz.

Beste alde, Haur-eskolako liburutegitxo bat antolatu nahi dugunean, aukeraketarako kriterio nagusiak lau hauek finkatuko nituzke:

1.- **PLASTIKA:** Erakargarria, kolore biziak, ma-

razki garbiak, fantastikoak. Adin honetan irudiak du garrantzirik nagusienetako bat.

2.- **HIZKUNTZA:** Testu xamurra eta irudiekin bat etorriko dena, arina, joskera ona, aberatsa eta hizki garbia.

3.- **GAIA:** Nagusiki ipuina, baina oso egokia eta beharrezkoa esango nuke, gai monografikoak eta ipuinak ez diren beste zenbait liburu mota.

4.- **TAMAINUA:** Desberdinak, erabilgarriak.

ZENTROKO LIBURUTEGI OROKORRA

Nahiz eta Haurreskolan gelako liburutegitxo izan, behar beharrezkoa da txiki-txikitatik, zentroko liburutegi orokorrera haurrak eramatea eta bertako norma eta materialarekin ohitzen joatea. Hortarako adin hauentzako bideratutako zenbait material egoki eta apal edo txoko izango dugu gela honetan.

Egokiena astero bertatik igarotzea litzateke eta gelan ez dituzten liburuak eskuetan erabili ahal izateko eta irudiak dastatzeko. Irakaslearen papera nagusiki liburuetan aurkitu daitezken gauzen posibilitateak deskubritzea izango da.

Interesantea litzateke noizean behin goi adineko ikasleekin batera saioak bideratzea eta hauek partizipatzea zenbait ekintzetan.

**HAURRESKOLAN BESTE GAI GUZTIE-
TARAKO BEZALA LEHEN ZIMENDUAK
JARTZEN DIRA HAURRA IRAKURLEA
IZAN DADIN. MIMOZ ETA ILUSIOZ BI-
DERATZEN BADUGU, EDOZEIN GIRO-
TAKO HAURRAK IRAKURLEAK IZAN-
GO DITUGU. ESKOLAKO EGINKIZUN
NAGUSIETAKO BAT BIHURTU BEHAR
LITZATEKE.**

IRAKUR ZALETASUNA

JULENE AZPEITIA ESKOLA PUBLIKOA
ZUMAIA

Las autoras de este artículo nos describen su experiencia de promoción de la lectura en niños de Ciclo Inicial.

Julene Azpeitia Eskola Zumaiaiko ikastetxe publiko bakarra da. 300 ikaslek jarraitzen dute beren ikasketak 15 gelatan banaturik, hauetatik 3 eskolaurrekoak eta 12 O.H.O.koak direlarik. Honez gain, eta Heziketa bereziko haurrentzat, beste gela bat dago.

Hizkuntz erduei dagokionez, eskolaurretik 3. mailararte D eredu, eta hemendik 8. mailararte berriz B.

IRAKUR ZALETASUNA

Orain dela 3 ikasturte, zikloko koordinazio bileretan ikasleek irakurketarako azaltzen zuten zaletasun gutxiaz kezkatutik hiz-

kuntza arloko irakasle guztiok lehen pausoak ematen hasi ginen.

Arazo honi irtenbide bat eman nahian mintegi bat antolatzearen beharra ikusi zen.

Mintegi honetan hizkuntza, euskera nahiz gaztelania izan, ematen zuten irakasle guztion partaidetza izango zuen. Lan bi-

lerak asterokoak izango ziren, bertan mintegi honetatik proposatzen genituen helburuak lortzeko eman behar ziren urratsak emanez.

Hasierako helburu nagusia gure eskolaren egoera konkretoa eza-gutzeko eman beharrezko pausoak zehaztea izan zen. Horrela



liburutegiko liburu guztiak berri-kusi ziren: kontatu, baliagarriak edo egokiak ez zirenak baztertu, mailakatzeko erizpideak finkatu, aztertu, mailakatu, osatu...

Ikasleen zaletasuna ezagutzeko, bai gurasoei eta bai ikasleei zuzendutako inkesta batean zenbait datu jaso genituen.

Hau egin ondoren, Gelako Liburutegia baliabide bezala erabiltzea erabaki ondoren, gure lana helburu hau lortzera zuzendu zen: mailakatuta genituenak sakongia-go aztertu, merkatuan zeudenak ezagutu, gela bakoitza osatzeko programa bat prestatu...

Guzti honekin batera, irakurketari buruzko zenbait autoreen iritzia eta beste esperientzi batzuk ezagutzen saiatu ginen.

Lan hau egin ondoren zenbait ondorio atera ziren.

Une horretan eskola baliabide materialez (liburuak) nahiko horniturik bagenuen ere, baliabide metodologiko berriak bideratu behar genituen, ez bait zen nahikoa gelan liburutegia izatea irakur zaletasun hori bultzatzeko.

MINTEGIAREN PLAN-TEAMENDU BERRIAK

Bide berri hau irakurketa eta jolasa elkartzean aurkitu genezakeela iruditu zitzaigun.

Horrela lehendabizi Hasiera Ziklorako programa pedagogiko bat sortzeko lanean hasi ginen, osatu ahala praktikan jarritz.

Programa honen ezaugarri nagusiak liburu eta liburutegiaren inguruan antolatzen diren jolasek osatzen dute:

– Liburu berrien aurkezpenak (irakasleak eta ikasleak).

– Irakaslearen eguneroko irakurketa: motibazioa, interesa, liburu berriak aurkezteko...

– Ikasleen irakurketa:

• Gelan: liburuak ezagutzeko, etxera eramango dutena aukeratzeko...

• Etxean: Gelan ezagutu duen liburu irakurri eta KARTA (formato desberdinetakoak, liburuaren datuak biltzen dituzte) bat osatu eta ondoren gelako BUZOIAN bota.

– Propaganda: ikasleek egiten dute gelakoei edo beste mailakoei (pasilotan) irakurri duten

liburuak ezagutarazteko, gomendatzeko... Honetarako zenbait jolas prestatu dira.

Emaitzak benetan handiak izan dira. Haurrek ilusio handiz egoten dira etxerako liburu hartzeko eguna iristen denean. Liburuaren inguruan egiten diren jolasetan hauek irakurriak izaten direla ikusten dugu. Ez da irakurketa bakarrik bultzatu, idazmena eta sormena ere bultzatu ditugu haurrek beraien liburuak argitaratu nahi izan dituzte, idatzitakoa irakurtzea benetan esperientzi atsegina dela bizi izan dutelako.

Momentu honetan, dugun esperientziarekin lortutako emaitzetan oinarriturik, gure asmoak, orain artekoa zehaztuz eta sistematizatuz gain, hizkuntza arloko helburuak liburu eta liburutegiaren inguruan antolatutako jolas-ekintzen bitartez bideratzera zuzentzen dira.

*Mariapi Otamendi
Edurne Telleria*





Mariasun Landa

Liburuak zertarako?

bizitzaren leiho zabalak irekitzeko
amets erosak egiteko
ezagutzen ez ditugunekin hitzegiteko
ezagutzen ez ditugunei entzuteko.

Liburuak zertarako?

aulkitik altxa gabe abenturak korritzeko
denborapasa atseginean egiteko
ideiak elkarri trukatzeko
geure pentsamoldeak aldatzeko.

Liburuak zertarako?

liburuak irakurtzen ikasteko
geure buruari barre egiteko
beldur kilikagarria sentitzeko
“maite zaitut” esaten ikasteko.

Liburuak zertarako?

Ni nor naizen konturatzeko
besteak nolakoak diren jakiteko
hodeiei izen bat jartzeko
itsasoari izena aldatzeko.

Liburuak zertarako?

bihotzeko mugak ezagutzeko
betirako lagunak egiteko
inoiz bakarrik ez sentitzeko
libreagoa izateko.

IRAKURTZEKO ZALETASUNA BULTZATZEKO PLANGINTZA

ESKORIATZAKO IRAKASLE ESKOLAN

Pello Añorga eta Nerea Alzola
Eskoriatzako Irakasle Eskolako "Haur Liburu Mintegia"

En este artículo se presenta un proyecto de animación a la lectura que está realizando Irakasle Eskola de Eskoriatza.

Este plan comprende varios aspectos: formación, seminarios de lectura, documentación, biblioteca y animación.

1988ko kurtso amaieran Deba Garaian egindako "Eskola eta Herriko Liburutegiei" buruzko inkestaren ondorioak kontutan hartuz, Eskoriatzako Irakasle Eskolak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura saila eta Deba Garaiko Mankomunitatearen laguntzaz, agertzen diren beharrei soluziobideak irekitzeko jomuga zabaletako plangintza eratu du.

Gure helburuak Plangintza honetan hauek dira:

- Biblioteka eta eskola arteko elkarlana lortzea.
- Profesionalak prestatzea.
- Irakurtzeko zaletasuna bultzatzea.

Momentu honetan arlo hauetan ari gara lanean:

1. Oinarrizko egitura eta materialaren antolaketa:

1.1. Haur Biblioteka

1.2. Dokumentu-bilduma

2. Liburu-mintegia

3. Zerbitzu Publikoa

1. OINARRIZKO EGITURA ETA MATERIALAREN ANTOLAKETA.

1.1. Haur Biblioteka

Irakasle eta bibliotekarien formaziorako eta Liburu-Mintegiaren laguntzarako toki eta oinarrizko lan-tresna da.

Beraz, eginkizun batzuk garrantzizkoak dira:

- espazioaren antolaketa
- liburu berrien aukeraketa
- sailkapena eta informatizazioa
- informazio-zerbitzua

1.2. Dokumentazioa

Informazioa batzea, sailkatzea eta eskaintzea izango litzateke arlo honen helburua.

Eginkizunak hauek dira:

- Lortzen dugun informazio guztia sailkatzea (aldizkarietako artikulak, esperientziak, grabazioak, etab.), definituta dauzkagun arlo hauetan:
 - harremanak
 - irakurketa

- haur biblioteken antolaketa
 - animazioa
 - liburu-kritikak
 - katalogoak
 - liburu-gidak
- Esperientzia duten Erakundeekin harremanak sendotu, informazioa jaso eta gure formazioa aberastu.
 - Dokumentu guztien informatizazio-prozesua martxan jarri.

2. HAUR LIBURU MINTEGIA

Bi talde jarri dira martxan:

Bat, Irakurketarren inguruan eta bestea, Animazioaren inguruan, guztira 30 lagun inguruk parte hartzen dutelarik (irakasleak eta bibliotekariak).

Hauen helburua, partaideen prestakuntzatik gain, zerbitzu kulturala eskaintzea da: gidak kaleratu, liburu berrien komentarioak eskaini, animazio-ekintzak antolatu, etab.

Prestakuntzarako bideak hauek dira: Bilera berak eskaintzen duen elkar-lana, arduradunek eskeintzen dituzten dokumentuak, noizbehinkako espezialisten presentzia...

3. ZERBITZU PUBLIKOA

Bide desberdinak ikusten dira gure Proiektua zerbitzu-publiko izan dadin:

- Animazio-ekintzak antolatzea (eskoletan, herri-biblioteketan, jai baten inguruan,...)
- Publikazioak: gidak, komentarioak, artikulak,...
- Ikastaroak, hitzaldiak antolatzea
- Aholkularitza-zerbitzu funtzionala antolatzea
- Kolaborazioak,...
- ...

4. ANIMAZIOA

Animazioaren sail zabal honetan, zerak aipatuko ditugu: era sistematikoz burutu diren ekintzak. Zergatik era sistematikoz? Ba, erabat konprobaturik dagoelako, animazioa urteetan zehar modu iraunkor eta egoki batez antolatuz gero, indartu egiten dela irakur zaletasuna.

Indartu ezezik, baita sendotu ere, nola kantitatez hala kalitatez. Horregatik, gure aurtengo ahalegina, animazio ekintzak sistematikoki antolatzea izan da, herriko Bibliotekaren markuan ohizko leku jakina eduki dezaten.

Dagoeneko, ipuin orduak, idazleekin elkarrizketak eta antzekoak, esaterako, ezagunak bihurtu dira eta bestalde, aipatu behar, irakasleen eta bibliotekarien programaketetan integratu direla.

Baina, aurren, beste ahalegintxo bat ere egin dugu: animazio-ekintza berriak bultzatzea.

Esaterako: Liburu-Erraldoia, Irakur-gidak,..., eta herriz-herri egin diren bilera orokorrak. Animazioa behar bezala tajutzeko, ez bakarrik bibliotekariak eta haurrak, baita herriko animatzaile sozio-kulturalak, Kultura zinegotziak eta gurasoak ere, inplikatu behar bait ditugu.

Hona, banan-banan, burutu diren ekintzak:

4.1. Deba Garaiko Mankomunitateko mailan herriz-herri, egindako bilerak

Aurren Animazio ekintzak hasi aurretik, Mankomunitateko herrietan, bilera orokor batzuekin egin genituen.

Helburua: Herriko Kultura ordezkariari aditzera ematea gure proiektuaren nondik norakoa, zeren, bibliotekariak sensibilizatuz gainera, uste dugu, Herriko beste sektoreak ere sensibilizatu behar ditugula.

Hala nola: gurasoak, irakasleak, zinegotziak eta animatzaile sozio-kulturalak. Garbi baitago, Eskoriatzako Liburu Mintegiak egin dezakeen animazioaz gainera, piskanaka-piskanaka, Herri bakoitzeko Bibliotekak ere, bere animazio propioa eta autonomia bilatzen joan behar duela.

Horregatik, iruditzen zaigu hain beharrezkoa, Herriko indar biziak ere biltzea gure Proiektuan.

4.2. Idazleekin elkarrizketak

Idazle eta haurren arteko elkarrizketak, giza baloreak eta beste batzuk ahaztu gabe, irakurketaren zaletasuna bultzatzeko eta neurri batetan Herri-Biblioteka ezagutzeko, oso egokiak direla pentsatzen dugu.

Haurrek irakurtzen dituzten liburuen egileak ezagutzea, heuren galderak egiteko aukera izatea, etab., haur askorentzat momentu "magikoa" eta erakargarria da.

Ezagutu duten idazlearen obra irakurtzera oso motibatuak sentitzen bait dira.

Ekintza hauetan faktore asko sartzen dira jokuak: idazlearen trebetasuna, irakasleen jarrera eta klasean egindako prestakuntza, ikasleen hizkuntza maila, etab.; beraz, irakasleak motibatzen eta kondizioak prestatzen saiatzen gara, baina faktore guztiak kontrolatzea zaila da.

Izan ere, talde batetik bestera ezberdintasun nabariak izan bait dira, giroketa aldetik batipat.

Esate baterako, gela gehienetan haurrak oso eraginda eta idazleari buruzko liburuak irakurri eta etorri dira; bestetan aldiz, gutxienetan, gutxi landuta eta hor, jakina, elkarrizketaren harian nabarmendu dira.

Ekintza hauek Herri-Bibliotekan egin dira eta bibliotekariaren parte hartzea interesgarria izanda: aurreko prestakuntza, Bibliotekaren apainketa, idazlearekin elkarrizketa momentua...

4.3. Ipuinaren ordua

Haur Biblioteketan antolatzen den animazio-ekintzarik aipagarriena ipuinaren ordua izango da, agian oso baliabide hurbila delako haurrentzat eta beraren bitartez, liburuekiko emozioa eta gustoa, oso txikitandik erna dakiokelako haurrari.

Behinik-behin, antolatu izan den lekuetan, oso ondorio positiboak izan ditu.

Ipuin kontaketa bitartez, ezin dugu ahaztu, haurren imajinazioa eta fantasia landuz gainera, liburuekiko emozioa ere landu dezakegula.

Ipuin saio hauek zuzendu dizkiegu:



– **Hasiara zikloko hurrei** (6-8 urtetakoei): denetara, bataz beste, 20 Ipuin saio.

– **Haur-Eskolako hurrei eta gurasoei**

Saio hauen funtsa zera zen: haur txikiak gurasoekin batera Biblioteketan batzea. Ezin dugu ahaztu, irakurketa oso txikitandik hasten dela –irakurketaren mekanikaz jabetu aurretik–: baina hortarako gurasoak ere sentibilizatu behar dira.

Ipuin saioaren bukaeran bestalde, aukera izan genuen liburu ezberdinak erakustea gurasoei, liburuak erosterakoan gogoan eduki behar direnak garbi azalduz.

Pozgarria izan da benetan, espazio berean haurrak eta gurasoak irakurtzen ikustea eta ipuinak entzutea.

Guztira, 7 saio izan dira (herri bakoitzeko bat).

– **Paralitiko zerebral eta mongolikoentzat (ASPACE eta Patronato San Miguel) saioak**

Aurten, primizia eta tanteo gisara, Bergarako “ASPACE” eta “Patronato San Miguel” Erakundeekin harremanetan jarriz, Ipuin saio batzu antolatu ditugu. Eta esan behar itzelezko arrakasta izan dugula.

Aurten, dena den, Ipuinaren ordua sartu dugu bakarrik, baina gure asmoa, Bergarako Bibliotekako mailegu zerbitzua ere bertan antolatzea da, animazio ekintza egokiz baliaturik.

4.4. Liburu erraldoia

Liburu Erraldoia, Herriko Bibliotekaren dinamikarako, oso baliabide eragingarria izan daitekeela iruditzen zaigu, batipat, haurren espresibitate landu dezagun Bibliotekaren espazioan.

Zertan datzan Liburu Erraldoia?

Lehenik eta behin, aipatu behar dugu, inprimatu gabe dagoen liburua dela; azal sendoz, orri txuriz zein hutsez osatua dagoena, Bibliotekara hurbiltzen diren hurrek erabili ahal izateko, nahi dituzten gomentarioak, kritikak, marrazkiak eta

idazlanak bertan agerraraziz.


Idea tajutu genuenean, garbi ikusi zen, berebiziko garrantzia izan zezakeela aurkezpenak eta horregatik, idazle-ilustratzaile bikote bat ekarri ahal izan genuen.

Eragina, begien bistakoa izan zen, eta bidebatez, saioetara hurbildutako hurrek fortuna izan zuten, idazle eta ilustratzailearekin batera, hainbat poema eta marrazki sortzea, liburu erraldoiaren barneko orrietan zehar.

Aurkezpen batzu, Udaletxeko bibliotekaren markoan egin ziren, baina beste batzu aldiz, Herriko enparantzan edo parkean, musikaz, mikrofonoz eta kabailetez baliaturik.

Teorian, Erdiko Zikloko haurrentzat (8-11 urtekoentzat) pentsatua zegoen, baina praktikan, adin guztietako haurrentzat izan dela esan behar.

Guztira, zazpi saio izan dira, Herri bakoitzeko bat.



HAUR ETA GAZTE
LITERATURA: **1989**
IRAKUR GIDA
I R A K A S L E E S K O L A
E s k o r i a t z a

IRAKURKETAREN ANIMAZIOA BIBLIOTEKA PUBLIKOETAN

BLANCA CALVO

Guadalajarako Biblioteka Publikoaren Zuzendaria

Algunos apuntes de la ponencia de Blanca Calvo, directora de la Biblioteca de Guadalajara, sobre la animación de la lectura (III Jornadas de Bibliotecas Públicas - San Sebastián).

Azken urte hauetan bezala, aurten ere Donostian, Maiatzak 11 eta 13 bitartean, Liburutegi Publikoei buruzko III Ihardunaldiak ospatu ziren. Bertan aipagarria deritzogu Blanca Calvoren ponentzia Irakurketaren animazioari buruz. Emakume hau Guadalajarako Biblioteka Publikoaren zuzendaria da; mundu honetan antzindarietako bat eta urte askoz lanean ibilitakoa denez esperientzia handikoa dugu Blanca Calvo Haur Biblioteka eta animazio arloan.

Blanca Calvok era honetan proposatu zigun Irakurketaren animazioa Biblioteka Publikoetan:

UNESCOKo Manifestuak dionez "Liburuekiko afizioa, Bibliotekak erabiltzearen ohitura eta bere errekurtsoak haurtzaroan errezago hartzen dira". Beraz bibliotekarioak erresponsabilidade handia dauka.

Gure txikiek irakurtzen gustora egon daitezen bi gauza beharrezko ditugu: Instalazio egokiak eta aktibitateak.

Haurrak, zaletasuna har dezan, aktibitate batzu antolatu behar dira alde zurretik. Oso garrantzitsua da haurrak Biblioteka ezagutzea txiki txikitatik, honetan eskolaren laguntza erabakikorra da. Eskola eta Biblioteka arteko lan elkartuak lor dezake haurren zaletasuna.

Aktibitateen antolaketa

Antolaketa honetan Blanca Calvok funtzio desberdinak bereizten dizkigu.

1. Erakarpen funtzioa:

Bibliotekak ezagutarazi behar dira, beraz aktibitate batzu antolatuz erraztu daiteke lehen harreman hori: eskoletatik joandako haurren bisitak, Biblioteka eskoletara eramatea, hitzaldiak, festak, liburu erakusketak, zinea, antzerkia, ipuinak, e.a.

2. Sakonketa funtzioa:

Bibliotekak aurreko pausua emanda gero, sakondu dezake lehen harreman hori: liburu aurkezpenak eginaz, gida liburuak atereaz, ipuin ordua antolatuz, idazleekin elkarrezagutzeak potentziatuz, e.a.

3. Funtzio kreatiboak:

Funtzio honen helburua haurrengan kreatibitatea zuzpertztea eta erizpide kritikoa sendotzea izango litzateke, honetarako behar diren marrazki eta literatur lehiaketak antolatuz, aldizkariak atereaz, antzerkiak prestatuz, etab.

4. Funtzio bereziak:

Jai aktibitateak antolatzea. Bibliotekaren zerbitzuak plazaratu ahal izateko. Aktibitate hauek normalean kalera ateratzen dira. Funtzio hauen artean "Liburuaren eguna" antolatzea egongo litzateke etab.

Lau funtzio hauek izango lirateke garrantzitsuenak animazio mailan, Blanca Calvoren esperientzia luzean.

Guadalajarako Biblioteka Publikoaren zuzendariaren ustetan aktibitate hauekin Biblioteka Herrira hurbiltzea nahi da eta herritarren bizi normaltean Biblioteka eta bere zerbitzuak integratzea.



DENISE DUPONT ESCARPIT-ekin

SOLASEAN...

Denise Escarpit, especialista francesa en el libro infantil nos habló de sus posiciones con respecto al libro y a la animación de la lectura. Las presentamos de forma resumida.

Haur eta Gazte literaturaz espezializaturik dagoen "Nous Voulons Lire" deritzan frantses aldizkariaren zuzendari dugu Denise Dupont-Escarpit. Honez gain, Bordeleko C.R.A.L.E.J.-eko (Akitania eskualdeko, Liburuaren, Irakurketaren eta Haur Gazte Literatura) Zentruaren sortzaile.

Joan zen, maiatzaren 11an, Donostiako Miramar Jauregian eta Liburutegi Publikoei buruzko III Ihardunaldien markuan, parada ederra izan genuen berarekin solasean aritzeko eta honetaz eta hartaz mintzatzeko.

– Zer erizten diezu, Denise, hainbat argitaletzek irakurzaletasunaren izenean ateratzen dituzten dossier eta lan-fitxa osagarriei?

(Aho batez erantzun zigun) Gorrotagarriak direla. Gauregun, nire eritzirako, gehiegi ari da "eskolari-zatzen" haur literatura. Adibide gisara, hor duzue une honetan, liburuaren inguruan ematen ari den "sektorizazioa".

Badirudi, edozein pastel gisara, urtetan zatitu behar dugula haurraren bizitza. Begira, liburu bat ona baldin bada, adin guztientzako ere ona izango da.

Arteak ez du konpartimendurik. Ez du adin jakinik. Denentzako da. Eta hala beharko du izan, baldin eta haur literatura ez badugu infantilizatu nahi.

– Zure ustez, orduan, animazio on batek, zer beharko luke eduki?

Liburuaren inguruan burutzen den edozein animaziok, liburu beharko luke eduki abiapuntu, liburu sostengu eta, noski, liburu helmuga. Gauregun, tamalez, han eta hemen aurkitzen dudana animaziogintza gehiena, aitzaki merkea besterik ez da zenbait interes -liburuarekin ezer ikusia ez duena-betetzeko. Hala nola: interes komertzialak, heziketa programaketak, ..., baita ludikoak ere. Baina, neri, animazio hori ez zait fitxik interesatzen. Neri liburu interesatzen zait.

– Aipa izkiguzu, bada, zeintzu diren zure animaziorik gustagarrienak.

(Zehatz erantzun zigun, bere sudurrak ere, betaurrekoen atzetik adituko bailuen) Erakusketa ibiltariak eta dokumentazio zentruak.



IRAKASLE ESKOLAK EGINDAKO BIDEO BERRIAK

1.- MADDIREN ABENTURAK

Sail honen helburua, euskara ikasten ari diren haurrei testuinguru ezberdinetan erabiltzen den euskara ezagutaraztea da.

Aurkezten ari garen materiala istoria bat da, OSPAKIZUN BATEN ANTOLAKETA.

- 1.- Errezetak aurkitzen
- 2.- Erosketak egiten
- 3.- Ezti produkzioa ikusteko irteera
- 4.- Bizkotxoak egiten



2.- HIZKUNTZA LANTZEKO BALIABIDEAK II

“Hizkuntza lantzeko baliabideak”II osatzen duten lau kapitulu hauek, “Hizkuntza lantzeko baliabideak”Iean hasitako bideo sailaren lehenengo urratsa betetzen dute.

Aurrekoan jolasa, antzezpena eta eguneroko ekintzak baziren aztertutako baliabideak, bideo honetan Ipuina eta Ikusentzungailuen aurkezpena egiten da.


Beraz, hauek dira oraingoz sail honen edukiak:

Hizkuntza lantzeko baliabideak I

- Sarrera
- Jolasa
- Antzezpena
- Eguneroko ekintzak

Hizkuntza lantzeko baliabideak II

- Ipuina 1,2
- Ikusentzungailuak 1,2



DOKUMENTAZIO ZENTRUA (0-7 urte)

IRAKASLE ESKOLA

Escuela Universitaria del profesorado. Tel. 790440

ESKORIATZA (Gipuzkoa)
